

Altzan, irratia nagusi

a Itzako Irratiaren II. Astea antolatu du *Altzako Irratiak*. Bigarren aste honetan mahai-inguruak izango dira *Casares Kultur Etxean*. Mahai-Inguru horietan **Irratia eta Publizitatea, Irratia eta Emakumea, Irrati Libreak, eta Irratia eta Euskara** gaiak jorratuko dira. Era berean, irratia historiari buruzko erakusketa bat izango da zabalik bertan. Hilaren 20tik 23ra *Altzako Casares Kultur Etxean*, 19.30etan.



**OTSAILAREN
22an**

Urko, Bergaminen poemekin

Jose de Bergamin poetaren olerkiekin diska bat atera berria du *Urko* donostiar kantariak. *Urkok* gaztelaniaz kantatzen duen lehen-dabiziko diska da hau eta lehen emanaldia *Victoria Eugenia Antzokian* egingo du. *Jose de Bergamin*-ek bere azken urteak Donostian egin zituen eta Hondarribian dago ehortzirik. *Victoria Eugenia antzokian* izango da, hilaren 22an 20.00etan.

Imagina ezazu Euskadi

San Telmo museoan «*Imagina ezazu Euskadi*» lehiaketaren VIII. edizioko emaitzak ikusgai ditugu. Margolaritzan 3 irabazleen lanez gain, epaimahaiak aukeratu dituen margoak ikusiko dira *San Telmo museoko areto txikian*. Argazkilaritzan aukeratutako lanak beste areto batean daude. Hilaren 25a arte *San Telmo museoan*.

dra» ipuina kontatuko zaie haurrei 18.00etan.

Hitzaldia

- **Altzako Irratiaren II. astean, «Publicidad en radio, ¿apuesta o hipoteca de futuro?»** gaiari buruzko mahaingurua izango da *Altzako Kultur Etxean* 19.30etan.

OSTEGUNA 22

Kontzertua

- **Urko** kantariaren eskutik kontzertua *Victoria Eugenia Antzokian* 20.00etan.

Ikuskizuna

- «Chile, entre mon-

tañas nevadas y desiertos» ikusentzutekoa emango dute *Belen Eguzkiza* eta *Eugenio Gorrotxategik Okendo Kultur Etxean* 19.30etan.

Hitzaldia

- **Altzako Irratiaren II. astearen barruan, «La radio tiene nombre de mujer»** izeneko mahaingurua emango da *Altzako Casares Kultur Etxean* 19.30etan.

- «Industrias y políticas culturales en España y el País Vasco» liburuaren aurkezpena izango da hilaren 22an arratsaldeko 19.30etan *Koldo Mitxelena Kulturunean*.

OSTIRALA 23

Antzerkia

- **La sombra del Tenorio** antzezlanaren emango du *Pentació* antzerki taldeak *Victoria Eugenia antzokian* arratsaldeko 20.00etan.

- **Marmol** antzerki taldeak *Lección de Italiano* antzezlanaren taularatuko du *Lugaritz Kultur Etxean* 20.00etan.

Zinema

- **Asterix eta Obeliken** abenturak filmean ikusgai *Axular Lizeoan Aieteko Gazte Asanbladak* antolatuta 18.00etan.

Hitzaldia

- **Altzako Irratiaren II. astea. Euskara eta Irratia** izenburupean mahaingurua izango da *Altzako Casares Kultur Etxean* 19.30etan.

Ikuskizuna

- **Hitz Egin** kontzertuaren bideo emanaldia ikusgai *Larratzoko Ikastetxe Publikoan* arratsaldeko 18.00etan.

Ipuinak

- **Ipuinaren ordua. Basoko Loti Ederra** ipuina kontatuko zaie haurrei *Larrotxene Kultur Etxean* 18.00etan.